

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

“Zadorrako ibilbide berdea: Langraiz Oka-Trebiñuko Muga tartea”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Foru Gobernu Kontseiluak, 2026ko ekainaren 2an egindako bilkuran, 330/2026 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Behin betiko onestea “Zadorraren Ibilbide Berdea, Langraiz Oka –Trebiñurekiko muga (Araba) tartea” proiektua. Proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra adieraztea. Presaz okupatzeko beharra adieraztea. Gastua baimentzea.

Martxoaren 24ko 180/2026 Foru Gobernu Kontseiluren Erabakiaren bidez, behin-behineko onespena eman zitzaion “Zadorraren Ibilbide Berdea, Langraiz Oka –Trebiñurekiko muga (Araba) tartea” proiektuari, onura publikokoa dela adierazi zen, eta jendaurreko informazioaren izapidea egiteko agindu zen, araudi sektorialean eskatzen den hilabeteko epean.

Proiektua jendaurrean jarri da behin-behineko onespena eman ondoren, 2026ko apirilaren 8ko ALHAOn (40. zk.) argitaratutako iragarkiaren bidez, eta legez ezarritako epea igaro eta alegaziorik aurkeztu ez denez, proiektuaren onespena behin betikoa izan behar da.

Era berean, Foru Gobernu Kontseiluren martxoaren 24ko 180/2026 Erabakiaren bidez, proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda zehatza eta indibidualizatua onesten da, bai eta hura jendaurrean jartzeko nahitaezko izapidea egitea ere. Izapide horretan ere ez da alegaziorik egin, eta, beraz, bidezkoa da hasieran onetsitako zerrenda behin betiko onestea.

Administrazio desjabetzaile honek eskatuta, Vitoria-Gasteizko 3 zenbakiko jabetza erregistroak jabariaren eta zamen egiaztagiriak eman ondoren, proiektu honen eraginpeko ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda egin behar da, eraginpeko finken aprobeitxamenduak kontuan hartuta, Desjabetze Atalak adierazitakoaren arabera.

Bestalde, desjabetze espedientea abiarazteko, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adierazi behar da, desjabetzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela, eta, ondorioz, okupazioa presakoa dela adierazi behar dela. Horiek horrela, Administrazio honen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak jakinarazi du Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen LPSa behin betiko onetsi zutela Arabako Batzar Nagusiek martxoaren 8ko 9/2023 Foru Arauren bidez.

LPS hori bi foru arauen agindutik dator:

– 4/2010 Foru Araua, martxoaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideei buruzkoa.

– 1/2012 Foru Araua, urtarrilaren 23koa, Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeei buruzkoa.

Urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Arauaren xedea da Arabako Ibilbide Berdeen araubide juridikoa arautzea, bai eta haiek eta haiekin lotutako azpiegiturak eraikitze, berreskuratzeko edo lehengoratzeko, aldatzeko, antolatze, erabiltzeko, kontserbatzeko, sustatzeko, deklaratzeko eta kudeatzeko arauak ezartzen dituzten xedapenak ezartzea ere.

Urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Arauak honela definitzen ditu ibilbide berdeak: komunikazio azpiegiturak dira –ahal dela zerbitzutik kanpo erabat edo neurri batean dauden azpiegitura lineal zaharrak–, garai bateko abelbideak nahiz bide naturalak, erromesenak eta ibilbide historiko handiak edota interes ekologiko eta paisaia interes adierazgarrikoak direnak erabiltzen dituztenak, motorizatu gabeko joan-etorriak egiteko (oinez, bizikletaz, zaldiz, patinekin, beste batzuen bitartez). Bide horiek jendeak erabiltzeko proiektatu, egokitu edo eraiki dira, naturan aisia irisgarria, aisia ekologiko eta hezitzailea, soziokulturala eta kirolekoa sustatze aldera. Halaber, zeharkatzen duten lurraldearen natura ondarea eta ondare historiko eta kulturala lehengoratu, dinamizatu eta balioztatu nahi da.

LPSan, planifikatutako ibilbide berdeen barruan, “Zadorraren Ibilbide Berdea” definitzen da, lehentasun handiko ibilbide berde gisa, Planaren lehen seiurtekoan (2022-2027) garatu beharrekoa.

Gainera, azaltzen da ekimenaren helburua dela Euskal Autonomia Erkidegoko 2021-2027 aldirako EGEF programan ezarritako helburuak betetzea, zehazki HE 2.8 helburuan ezarritakoa: hiri mugikortasun multimodal jasangarria sustatzea, karbono emisiorik gabeko ekonomia baterako trantsizioaren zati gisa.

Ekintza esparru horretan, Natura Ingurunearen Zuzendaritzak, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren bidez, “Zadorraren Ibilbide Berdea, Langraiz Oka –Trebiñurekiko muga (Araba) tartea” proiektua lantzen jardun du.

Amaitzeko, ondorioztatzen du, LPSn ezarritako programazioa betetzeko, proiektu honen exekuzioa bultzatzea erabaki dela, eta, horretarako, aipatutako proiektua onetsi dela, erabilera publikorako motorizatu gabeko mugikortasuna (txirringarria eta oinezkoena) garatzea ahalbidetuko duen helburuaren barruan, herriguneak lotzeko eta naturarekin eta ekologia, hezkuntza eta kultura helburuekin aisialdi irisgarria sustatzeko.

Idatzitako proiektuaren arabera, azpiegitura 2.686 metro linealetan egokituko da Langraiz Okatik Trebiñuko mugaraino. Bertan, Argantzongo herriguneraino iristen den ibilbide egokitu lotuko da.

Obra horien bidez, Zadorra ibaia den korridore berde hori indartu nahi da, ekologia eta paisaia konektibitateko bere funtzionaltasuna lehengoratzeko, bai eta oinez eta bizikletaz ibiltzeko bide baten bidez erabilera publiko bigun baterako egokitzeko ere, mugikortasun jasangarria eta herritarrak ibai ingurunera hurbiltzea eta harekin harremanetan jartzea sustatuko duena.

Premiazko adierazpenaren izapide horretarako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, bat etorritik Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 178.2 artikuluekin.

Arabako Foru Aldundiak eskumena du Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen ezarpena eta garapen egokia sustatu, bultzatu, zuzendu eta koordinatzeko, Autonomia Erkidegoko Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a).8 artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeei buruzko urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Arauaren 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eskumen horiek betetzeko, Foru Aldundiak desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 2.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Erakunde honen barne eremuan, Foru Gobernu Kontseilua da organo eskuduna desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda eta horiek okupatu beharra onesteko, hala xedatzen baitute honako hauek: Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Lege Araubidearen martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8.1.c).7 artikulua.

Eraginpeko ondasun eta eskubideak desjabetzeko aurrekontua 14.374,12 eurokoa da, Desjabetze Atalak jakinarazi duenez.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso baita.

Horregatik, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak eta Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DU

Lehenengoa. Behin betiko onestea “Zadorraren Ibilbide Berdea, Langraiz Oka –Trebiñurekiko muga (Araba) tartea” proiektua, eta onura publikoaren adierazpena egitea.

Bigarrena. Onespina ematea “Zadorraren Ibilbide Berdea, Langraiz Oka –Trebiñurekiko muga (Araba) tartea” proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari.

Hirugarrena. Haiek okupatu eta eskuratu beharra deklaraztea, desjabetzearen ondorioetarako.

Laugarrena. Honi erantsitako zerrendan agertzen diren ondasunak eta eskubideak presaz okupatu behar direla adieraztea, eta desjabetze espeditentea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan xedatutako presazko prozeduraren bidez izapidetzea.

Bosgarrena. Baimena ematea 14.374,12 euroko gasturako, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldiko aurrekonturako 15301. G/456150/60000154 partidaren kontura, eraginpeko ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Seigarrena. Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta/edo aldaketak egin ahal izateko, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontua betearazteko dagokion foru arauak.

Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.”

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Iruña Okako Udaletzeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 9a

Bide Azpiegituren zuzendaria

MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mugikortasun Jasangarriaren eta
Bide Azpiegituren Saila
Departamento de Movilidad Sostenible
e Infraestructuras Viarias

PROIEKTUA / PROYECTO

Zadorrako Ibilbide Berdea: Langraiz Oka-Trebiñuko muga tartea
Ruta verde del Zadorra: tramo Nanciales de Oca-límite con Treviño

ERANSKINA / ANEXO

Udal Mugartea / Término Municipal: Iruña Oka / Iruña de Oca

FINKA ZK.	TITULARARRA	KATASTROKO DATUAK			APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m ²		EGUNA	ORDUA
		POLIGONO A	LURSAILA	DATOS CATASTRALES		BEHIN-BETIKOA	SUPERFICIE AFECTADA m ²		
Nº FINCA	TITULAR	POLIGONO	PARCELA	APROVECHAMIENTO	DÍA	HORA			
3/000	J. Ramón Ruiz de Austri Oraa Oscar Ruiz de Austri Oraa	1	143	Labore ureztatua /	2.536,03	10:00	03/07/2026		
				Tierra de labor regadío					
				Mendia / Monte					
1/000	Gracia María Delgado Pastor Gracia María Herrera Delgado Juan Francisco Herrera Delgado	1	1130 A	Ez-emanakor /	153	10:45	03/07/2026		
				Improductivo					
2/000	Administrazio-batzar / Junta administrativa: Langraiz Oka / Nanciales de la Oca	1	397	Mendia / Monte	23	12:00	03/07/2026		
4/000	Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava	1	1097	Ez-emanakor / Improductivo	167				